

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Santa Crizko (Eslaba) eta Los Cascajosko (Los Arcos) aztarnategiak kultur intereseko ondasun izendatu dira

Santa Crizen hiri erromatar garrantzitsu baten hondakinak daude, eta Los Cascajosen herrixka neolitiko berezi bat aurkitu zen

Asteazkena, 2016.eko abuztuak 24

Nafarroako Gobernuak gaurko bileran bi erabaki hartu ditu eta, haien arabera, kultur intereseko ondasun izendatu ditu, alde batetik, Eslabako Santa Crizkoko hiri erromatarren gune arkeologikoak, eta bestetik, Los Arcosen dagoen Los Cascajosko herrixka neolitikoa.

1917tik jadanik ezagutzen zena, **Santa Crizko** hiri erromatarrean hainbat indusketa egin dira iragan mendeko 90ko hamarkadatik gaur arte. Hiri horren izen latindarra ezagutzen ez bada ere, hark duen hirigune izaera beti argi geratu izan da bertako hondakinen monumentaltasuna ikusita eta han agertutako inskripzio pila ikusita, Nafarroan gehien agertutakoak zalantzarik gabe.

2014ko maiatzean, Nafarroako Gobernuak eta Eslabako Udalak hitzarmen bat sinatu zuten eta, haren bidez, udalerriri 450.000 euro ordainduko zitzaizkion Santa Crizen 2014 eta 2015 urteetan aurreikusitako jarduketak finantzatze aldera; haren barnean sartzen ziren, indusketaz gain, estali gabeko egiturak finkatzea, haietako batzuk jatorrizko egoeran jartzea, eta hondakinak egokitzea bisitariak batera eta bestera ibil zitezen.

Finkatze-obra iragan udazkenean amaitu ziren, ia 300 metro koadroko foro bat induskatu ondoren, eta azken fasean, iragan udaberrian osatua, toki hori museo bihurtu da, ibilbideak egokituz, informazioa jarriz eta piezak erakutsiz; horrekin batera, egindako lanen memoria idatzi da.



Santa Crizko (Eslaba) hiri erromatarren ikuspegia.

Los Cascajos

Los Arcosko udal-
mugartereko hegoaldean dagoen
Los Cascajosko aztarnategia,
Odron ibaiaren ibilgutik gertu,

1995ean ustekabeen aurkitu zen obra batzuk egiten ari zirela-
eta. 93 bat hektarea hartzen ditu eta behe Neolitikoan eta
ertainean izan zuen okupazio nagusia (4200 eta 3150 urteen
artean k.a.). Bertan zeuden egontoki edo antzekoengatik –
etxebizitzak, lurperatzeak, siloak.. aurkitu dira– Nafarroa
guztiko kasu bakarra da.

Nafarroako Gobernuaren finantzaketarekin egindako
indusketei esker, 31 egitura topatu ahal izan dira 32
hobiratzerekin eta hiru txabola zirkularri eusten zieten zutabeen zuloak; aurkikuntza horrek herrixka
neolitiko hori Iberiar Penintsulako garrantzitsuenetakoa bat bihurtu du.



Los Cascajosko (Los Arcos) aztarnategiko txabola baten aztarnak.